

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 372/2019 abuztuaren 2koa, 2019ko "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren deialdia onesten duena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eginkizunetako bat da artisauen sektorea sustatzea.

Beste urte batzuetan bezala, Arabako Foru Aldundiak "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren beste deialdi bat egitea aurreikusi du, artisautza jarduera piztu eta alor horretan diharduten langileen ezaguerak eta esperientziak faboratzeko.

Deialdi honen barruan, birmoldatu egin dira lehiaketako modalitateak eta sariak, nabaritutako eskari eta beharrietara egokituz.

Ahalik eta zabalkunde handiena emateko, nahitaez ezarri behar da lehiaketaren deialdia, zeinari parte hartzaileak lotu behar zaizkion.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren 2019rako deialdia, eta bideratzea 4.320,00 euro sariak ordaintzeko.

Bigarrena. Lehiaketaren deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. Xedapen honi erantsi zaizkio.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuaren 30.5.02.36.02.226.99.00 partidaren kontura ordainduko dira sariak (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105.3696/000).

Laugarrena- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Jarduneko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
ADOLFO LANDER VERA

ERANSKINA**2019KO "BLAS ARRATIBEL" ARTISAUTZA LEHIAKETAREN OINARRIAK****1. LEHIAKETAREN HELBURUA**

Lehiaketa honek artisautza alorreko jarduerak sustatzea eta bultzatzea du helburu, "Blas Arratibel 2019" sariak emanda deialdian ezarritako modalitateetan.

2. EREMUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Trebiñuko Konderrian erroldatuta daudenek eta deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

3. MODALITATEAK

Lehiaketak bi modalitate ditu, eta horietako bakoitzari sari bat esleituko zaio.

A modalitatea. ARTISAUTZA TRADIZIONAL NAHIZ BERRIRAKO saria, dagokion erakundeak artisau izaera aitortu dien pertsonentzako.

B modalitatea. Sari BEREZIA, artisau izaera aitorturik ez daukaten pertsonentzako.

Parte-hartzaileek gehienez ere lan bat aurkeztu dezakete lehiatu daitezkeen modalitate bakoitzean.

Aurkezten diren lan edo aleek, forma klasiko ezagunak berregin beharko dituzte historian zehar erabilitako materialak eta teknikak erabiliz, edota tradiziokoez bestelako emaitzak lortu beharko dituzte artisautza tradizionalen erabilitako prozedurak edo ekoizpen prozesuak errespetatuz, material berriak, antzekoak edo berdinak erabilita.

Adierazitako edozein modalitatetara aurkezten diren aleak edo lanak multzo bereko elementu batek edo gehiagok osa ditzakete. Azken kasu horretan, elementu multzoa pieza edo lan bakartzat joko da.

4. BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

Lanak aurkezteko garaian, lanaz edo aleaz gainera, gutun azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan honako agiri hauek dituen:

- Idazki bat, lanaren egilearen datu hauekin: izen-abizenak, helbidea, e-mail eta telefonoa.
- NANaren fotokopia
- ERROLDA ZIURTAGIRIA

– Artisaua dela adierazten duen egiaztagiria, horretarako eskumena duen erakundeak emana, zeinean agertuko den parte hartzaileak deialdi hau ALHAOn argitaratu baino lehenago-tik aitortuta duela artisau izaera. (A modalitatean aurkeztutako lanetarako bakarrik). Arabako Artisautza Erregistroan izena emanda dutenek ez dute azkeneko agiri hori aurkeztu beharrik izango, egiaztapena ofizioz egingo baitzaie, hala badagokio.

Aipatutako gutun azalaren kanpoaldean, adierazi beharko da:

- Zein modalitatetan lehiatzen den.
- Titulua edo identifikazio goiburua, zeina aurkeztutako lanaren kanpoaldean agertuko denaren berdina izango baita.

Aukeran, lanen egileek aurretik aipatu den gutun azalari, kanpoaldean, informazioa erantsi ahal izango diote, lana erakusketarako muntatzeko jarraibideena edo aurkeztutako lana egiteko edo sortzeko prozesuari buruzkoa.

5. ARAU OROKORRAK

Artisauak direla egiaztatzen ez dutenek ezin izango dute saririk irabazi artisautza tradizionalaren edo artisautza berriaren modalitatean.

Edozein modalitatetan aurkeztutako piezek ezin izango dute eduki egilea identifikatzeko bide ematen duen inolako elementurik. Baldintza hori betetzen ez bada, pieza lehiaketatik kanpo geratuko da.

Maketak lehiaketa honetatik kanpo daude espresuki, beren tamainagatik edo pisuagatik lehiaketako erakusketan ikusgai jarri ezin daitezkeen lanen isla zehatza izan ezean.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak saririk kanpo utz ditzake lanak, baldin eta atzematen bada erakusteko esparrua kaltetu eta/edo hartan negatiboki eragin dezaketen materialak edo beste elementu batzuk daudela, berdin diolarik sariaren epaitza eman den ala ez.

6. ZUZKIDURA

Sariak zenbateko hauekin zuzkituta egongo dira:

A modalitatea, ARTISAUTZATRADIZIONAL NAHIZ BERRIRAKO saria, dagokion erakundeak artisau izaera aitortu dien pertsonentzako: 3.000,00 euro.

B modalitatea. SARI BEREZIA, artisau izaera aitorturik ez daukaten pertsonentzako: 1.320,00 euro.

Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontu 2019ra luzatuaren 30.5.02.36.02.226.99.00 partidatik ordainduko da.

7. AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak 2019ko urriaren 29an, 30ean eta 31n aurkeztu behar dira, 10:00etatik 14:00etara, BIBAT Museoaren bulegoetan (Aiztogile kalea, 54 - Gasteiz).

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatuko du epaimahaia, eta hark lanak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean ezagutaraziko du bere epaia komunikabideen bidez.

Epaimahaia hiru pertsonak eta idazkari batek osatuko dute. Azken hori hitzarekin baina botorik gabe arituko da.

Lan bat baino gehiago botoetan berdinduta gertatzekotan, epaimahaiaren buruak erabakiko du zein den lan irabazlea, dagokion modalitatean.

Ahal den guztia egingo da epaimahaiaren ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokiko emakume eta gizonen ordezkariak orekatua egoteko. Ondorio horietarako, ordezkariak orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkariak baldin badu. Gainerako kasuetan, bi sexuak ordezkariak daudenean izango da orekatua. Izan ere, halaxe xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.5 artikuluan.

Sariak eman gabe geldi daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

9. ERAKUSKETA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak jendaurrean jarriko ditu lehiaketara aurkeztutako lanak, BIBAT Museoaren erakusketa aretoan (Aiztogile kalea, 54 - Gasteiz), 2019ko azaroaren 18tik abenduaren 8ra arte.

Beren tamainagatik edo pisuagatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritzian erakusketan ikusgai jarri ezin daitezkeen ale guztiak kanpo geratuko dira, lehiatzaileek ez badute aurkezten jatorrizko lanaren isla zehatza den maketa bat, epaimahaia lehiaketako epaia emateko biltzen den eguna baino lehenago. Maketa horrek ezin dezake izan metro kubo baino gehiagoko bolumena edo 40 kilo baino gehiagoko pisua.

Erakusketan lanen egileak nor diren jakitera eman ahal izateko, epaimahaia epaia ematen duen eguna baino geroago, Arabako Foru Aldundiak irekiko ditu saririk jaso ez duten lanak eta egileak identifikatzen dituzten gutun azalak.

Baldin eta egileak lana erretiratzeko badu lanen erakusketa bukatu baino lehen, ezin izango du beste proposamenik aurkeztu Arabako Foru Aldundiak 2020an, 2021ean eta 2022an sustatzen dituen Blas Arratibel artisautza lehiaketetan.

Lanen erakusketa orokorreko data igaro eta gero, lan sarituak Arabako Foru Aldundiak egoki irizitako beste esparru batzuetan erakutsi ahal izango dira, 2020ko urtarrilaren 6 arte, eta gorabehera hori pieza edo lanen egileei jakinaraziko zaie.

10. LANEN JABETZA

Bai saria jaso duten lanak bai saririk jaso ez dutenak beren egileen eskuetan egongo dira.

11. GORABEHERAK

Arabako Foru Aldundiak deialdi hau izapidetzerakoan egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ahal izango ditu, eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri. Gainera, ez da izango parte hartzaileek aurkeztutako lanak hondatu izanaren erantzule, hori gertatuz gero.

12. LANAK ITZULTZEA

Saririk jaso ez duten lanak 2019ko abenduaren 11n, 12an, edo 13an jaso beharko dira aurkeztu ziren leku berean, 10:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarota, jaso ez diren lanak foru aldundi honen esku geratuko dira.

Arabako Foru Aldundiak sarituei jakinaraziko die zer egunetan eta zer ordutan erretiratu ditzaketen pieza sarituak, betiere 2020-01-31 baino lehen.

13. ERREKURTSOAK

Honako deialdi honen aurka zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.